# irura
## AISIALDIRAKO 2023 GiDA

**MARTXOA** MARZO



**MARTXOA 8 *MARZO***
"EMAKUMEEN
NAZIOARTEKO EGUNA"



**MARTXOA 10 *MARZO***
"ALARMA MOREA"

## 01/ asteazkena *Miércoles* **17:00**

Liburutegian *En la biblioteca*

### "IPUIN ZOPA" IPUIN KONTAKETA

**INES BENGOAREN ESKUTIK**

***«CUENTACUENTOS: SOPA DE CUENTOS»***

***DE LA MANO DE INÉS BENGOA***

Ipuin epelak neguko arratsaldeak pasatzeko.
Neguan sutondoan berotu gaitezke, Ipuin Zopa batekin bada askoz hobe!



*Cuentos templados para pasar las tardes de invierno. En invierno podemos calentarnos junto al fuego, ¡mucho mejor si es con una sopa de Cuentos!*

- Euskaraz *Euskera*
- +5 urte *Años*

## 03/ ostirala *Viernes* **19:00**

Kulturunean *En el centro cultural*

### MAGMA MIA! BAKARRIZKETA

**BEATRIZ EGIZABALEN ESKUTIK**

***MONÓLOGO: ¡MAGMA MIA! A CARGO DE BEATRIZ EGIZABAL***




"Haserre nago, sutan nago, irakiten nago… presio gehiegi eta zulo guztiak itxita mantentzeko hezi naute. Sumendia lehertzear dago..."
Bakarrizketa feminista; militantziatik asko, baina umoretik are gehiago duen ikuskizunak ikusle potentzial desberdinetan gogoeta eta barreak eragitea du helburu.

*Estoy enfadada, estoy furiosa, estoy hirviendo con demasiada presión y me han educado para mantener todos los agujeros cerrados. El volcán está a punto de estallar ...».*
*Monólogo feminista; un espectáculo que tiene mucho de militancia pero aún más de humor, reflexiones y risas cuyo objetivo es provocar la reflexión y las risas en diferentes públicos potenciales.*

- Euskaraz *Euskera*
- +16 urte *Años*

**07/** asteartea *Martes* **18:30**

Herri eskolako aretoan *Sala de la Herri eskola*

## IRURA TOKIKO ENERGIA KOMUNITATEA SORTZEA

### *CREACIÓN DE LA COMUNIDAD ENERGÉTICA LOCAL IRURA*

Klima-larrialdi garai honetan Irurako Udala energia-trantsizioa ahalbidetzeko hainbat urrats ematen ari da: eraikinetako energia-auditoretzak, kale-argiteriaren auditoretza, elektrizitate-fakturak ulertzeko ikastaroak, …
Ildo horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentuarekin elkarlanean, Irurako Energia Komunitatea sortzeko prozesua abiatu du Udalak. Honela, Tokiko Energia Komunitate bat zer den eta zein onura dituen ezagutzeko informazio-saio baterako gonbita luzatzen die Udalek herritar, merkatari edo interesa duen herriko bestelako eragileei. Izen ematea
ingurumena@irura.eus edo 943691333

*En este momento de emergencia climática el Ayuntamiento de Irura está dando varios pasos para posibilitar la transición energética: auditorías energéticas en edificios, auditoría de alumbrado público, cursos de comprensión de facturas eléctricas. En este sentido, en colaboración con el Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Ayuntamiento ha iniciado el proceso de creación de la Comunidad Energética de Irura. Así, el ayuntamiento invita a una sesión informativa para conocer qué es una Comunidad Energética Local y cuáles son sus beneficios a ciudadanos, comerciantes u otros agentes del municipio interesados.*
*Inscripción:ingurumena@irura.eus o 943691333*

· Elebitan *Bilingüe* · Publiko guztia *Todos los públicos*

(Irurako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak antolatuta *Organizado por el Ayuntamiento de Irura y el Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa*)



irura




# M8

asteazkena *Miércoles* **9:00** Ikastolan eta herrian zehar
*En la ikastola y por las calles del pueblo*

**MARTXOAK 8: EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA**

***8 DE MARZO: DÍA INTERNACIONAL DE LA MUJER***

Emakume langilearen Nazioarteko Eguna izanik, "Irurako Emakumeen ekarpena Irurako Historian" unitate didaktikoaren lanketa eta herriko emakumeen ibilbidea egingo da ikasleekin.

*Siendo el Día Internacional de la Mujer Trabajadora, practicaremos con los y las alumnos y alumnas, la unidad didáctica denominada Aportación de las Mujeres de Irura en la Historia de Irura y realizaremos el recorrido morado del pueblo.*

· Euskaraz *Euskera*

· Irurako Ikastolako ikasle eta irakasleak *Todos los públicos*

(Irurako Ikastolak antolatuta *Organizado por la Ikastola de Irura*)

---

**18:30** San Migel plazan *Plaza San Miguel*

**MARTXOAK 8: EMAKUME LANGILEON NAZIOARTEKO EGUNA**

***8 DE MARZO: DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES TRABAJADORAS***

Martxoak 8 ospatzeko, aldarrikapen ekitaldia egingo da San Migel plazan, 18:30etan. Ondoren manifastazioa herriko kaleetan eta Anoeta eta Irura arteko zubian elkarteratzea Anoetakoekin batera.

*Para celebrar el 8 de marzo, la plaza acogerá un acto reivindicativo que partirá a las 18:00 horas. Después, iremos en manifestación por las calles del pueblo y nos concentraremos en el puente entre Anoeta e Irura, junto a los de Anoeta.*

· Publiko guztia *Todos los públicos*

(Irura Moretuz elkarteak antolatuta *Organizado por Irura Moretuz*)

**09/** osteguna *Jueves* **18:00**

Herri eskolako aretoan *Sala de la Herri eskola*

## ELBIRA DOKUMENTALAREN PROIEKZIOA

### *PROYECCION DEL DOCUMENTAL ELBIRA*




Elbira Zipitria, Donostiako lehen ikastolen sustatzaileetako bat izan zen. Euskal abertzale sutsua, gerra aurreko belaunaldien eta gerraosteko euskal irakaskuntzaren arteko zubi lana egin zuen. Francoren aldeko tropen altxamenduaren ondoren, Donostiatik ihes egin behar izan zuen eta urte batzuetara, Donostiara itzultzean, etxe-eskola sortu zuen, eta bertan hainbat eta hainbat haurrei –neska eta mutil, elkarrekin– euskarazko irakaskuntza eskaini zien. Berdintasuna ekarri zuen garaiko irakaskuntzara berdintasunaz hitz egin gabe. Horrez gain, maistra berriak trebatu zituen, euskal hezkuntzaren zabalkundean funtsezko izan ziren lehen andereñoei irakatsiz.

*Elbira Zipitria fue una de las promotoras de las primeras ikastolas de Donostia. Ferviente nacionalista vasca, ejerció de puente entre las generaciones de antes de la guerra y la enseñanza vasca de la posguerra. Tras el levantamiento de las tropas a favor de Franco, tuvo que huir de San Sebastián y años más tarde, de regreso a San Sebastián, fundó la casa-escuela, donde ofreció enseñanza en euskera a multitud de niños, chicos y chicas. Trajo igualdad a la enseñanza de la época sin hablar de igualdad. Además, formó a nuevas maestras, instruyendo a las primeras andereños que fueron claves en la difusión de la educación vasca.*

*Antes de la proyección algún director o protagonista del documental realizará una presentación.*

· Euskaraz *Euskera*

· Gazte eta helduak *Jóvenes y adultos*

## 10/ ostirala *Viernes* **18:00**

San Migel plazan *Plaza San Miguel*

### ALARMA MOREA TALDEAREN KONTZERTUA

### *CONCIERTO DEL GRUPO ALARMA MOREA*

Emakumeen presentzia oholtzan aldarrikatzeko eta emakumezko erreferenteei ikusgarritasuna emateko, hiru emakumez osaturiko talde honek, feminismoan, aniztasun kulturalean eta euskararen sustapenean oinarrituz, jatorrizko kantak eta bertsioak egiten dituzte errunba doinuetan. Talde honen helburuetako bat, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko borrokan bere harri-koskorra jartzea da, eta, beraz, jotzen dituzten bertsio asko emakumeek osatutako taldeenak dira.

*Para reivindicar la presencia de las mujeres en el escenario y dar visibilidad a los referentes femeninos, este grupo de tres mujeres, basándose en el feminismo, la diversidad cultural y la promoción del euskera, realizan canciones originales y versiones en melodías de rumba. Uno de los objetivos de este grupo es poner su granito de arena en la lucha por la igualdad entre mujeres y hombres, por lo que muchas de las versiones que tocan son de grupos formados por mujeres.*

· Elebitan *Bilingüe* · Publiko guztia *Todos los públicos*

## 10/ ostirala *Viernes* **20:00**

Gazte Alaiak elkartean *Sociedad Gazte Alaiak*

### EMAKUMEEN AFARIA

### *CENA DE MUJERES*



Martxoak 8 ospatzeko, herriko emakumeen afaria egingo da Gazte Alaiak elkartean. Poteoarekin hasi eta Gazte Alaiak elkartean afalduko da. Ondoren, Irura kafetegian musika izango da. Prezioa: 20 euro (egunean bertan ordainduko da). Izena martxoaren 3a baino lehen eman beharko da iruramoretuz@gmail.com helbidean edota Xare kafetegiko zerrendan.

*Para celebrar el 8 de marzo se degustará una cena entre mujeres de la localidad en la sociedad Gazte Alaiak. Comenzaremos con un poteo y cenaremos en la sociedad Gazte Alaiak. A continuación, en la cafetería Irura habrá música. Precio: 20 euros. Se abonará el mismo día). La inscripción deberá realizarse antes del 3 de marzo en iruramoretuz@gmail.com o en la lista de la cafetería Xare.*

· Herriko emakume guztiak *Todas las mujeres del pueblo*

(Irura Moretuz elkarteak antolatuta *Organizado por Irura Moretuz*)

**12/** igandea *Domingo* **11:00**
San Migel plazan *Plaza San Miguel*

## 2. ESKUKO AZOKA

***MERCADO DE 2ª MANO***

Hondakinak murrizteko eta berrerabilpena sustatzeko azoka. Azokan parte hartzeko bi modu daude:
-Norberak bere postua jartzea. Interesa duenak irurabizi@gmail.com helbidera idatzi martxoaren 10a baino lehen. Norberak bere postuan saltzen dituen gauzen dirua norberarentzat izango da.
- Postua jarri nahi ez duenak aukera du etxean dituen objektuak Irura Biziren postuan uzteko: egunean bertan 10:00etatik 11:00etara bitartean, edo aurrez irurabizi@gmail.com helbidera idatzi eta adostutako egun eta orduan. Postu horretan saltzen diren gauzen dirua Iruran ekintza berriak antolatzeko erabiliko du Irura Bizi elkarteak.
*Feria para reducir residuos y promocionar la reutilización. Hay dos formas de participar en la feria:*
*- Que cada uno ponga su puesto. Los interesados pueden escribir a irurabizi@gmail.com antes del 10 de marzo. El dinero de las cosas que uno vende en su puesto será para uno mismo.*
*- Quien no quiera poner el puesto puede depositar los objetos que tiene en casa en el puesto de Irura Bizi: el mismo día entre las 10:00 y las 11:00 horas, o previamente irurabizi@gmail.com en la en fecha y hora acordadas. La asociación Irura Bizi destinará el dinero de las cosas que se vendan en este puesto a la organización de nuevas actividades en Irura.*

· Publiko guztia *Todos los públicos*
(Irura Bizi elkarteak antolatuta *Organizado por Irura Bizi*)



**17/** ostirala *Viernes* **18:00**
Herri eskolako aretoan *Sala de la Herri eskola*

## BARRETERAPIA TAILERRA HELDUENTZAT
### *TALLER DE BARRETERAPIA PARA ADULTOS*

Gure barruko alaitasuna eta samurtasuna aktibatzeko tailerra. Horretarako, jolasa erdigunean jarri eta barrea umore-tresna gisa erabiliko da.
Tailerra doakoa izango da eta Manex Beristain Agirrek dinamizatuko du.
*Oharra: 12 lagun gehienez eta 6 lagun gutxienez. Lehentasuna irurarrek izango dute.*
*Un taller para activar la alegría y la ternura en nuestro interior. Para ello, colocaremos el juego en el centro y utilizaremos la risa como herramienta de humor.*
*El taller será gratuito y estará dinamizado por Manex Beristain Agirre.*
*Nota: máximo 12 personas y mínimo 6 personas. La prioridad la tendrán los irurarras.*

- Euskaraz *Euskera*
- +16 urte *Años*
- Izen ematea www.irura.eus -en gonbidapena eskatuz, kultura@irura.eus helbidera idatziz edo kultura bulegora deitu (943 692674)
  *Inscripción solicitando invitación de www.irura.eus, escribiendo a kultura@irura.eus o llamando a la oficina de cultura (943 692674)*

(Irura Bizi elkarteak antolatuta *Organizado por Irura Bizi*



## 24/ ostirala *Viernes* **17:00**

Herri eskolako aretoan *Sala de la Herri eskola*

### ADIMEN EMOZIONALA, ZER DA SENTITZEN DUDANA?

### *EDUCACIÓN EMOCIONAL: ¿QUÉ ES LO QUE SIENTO?*

Gipuzkoako Foru Aldundiak bideratzen duen “TREBA Gazteak” ekimenaren barruan kokatzen den hitzaldia, Irina Garciaren eskutik.

*Conferencia que se enmarca dentro de la iniciativa TREBA Jóvenes, impulsada por la Diputación Foral de Gipuzkoa. De la mano de Irina Garcia.*

- Euskaraz *Euskera*
- +16 urte (gazteak) *Años (jóvenes)*
- Izen ematea martxoaren 16 arte gazteria@irura.eus elektronikora idatziaz edo 688827206 telefonoan, izen abizenak eta kontaktua adieraziz *Inscripción hasta el 16 de marzo escribiendo al correo electrónico gazteria@irura.eus, o llamando al teléfono 68827206, indicando nombre, apellidos y contacto.*
- Gutxienez 10 pertsonak eman beharko dute izena *Deberán inscribirse al menos 10 personas*

## 31/ ostirala *Viernes* **16:00**

San Migel plazan *Plaza San Miguel*

### AZOKA SOLIDARIOA

### *FERIA SOLIDARIA*

Ikastolako LH6ko ikasleek proiektu solidarioa antolatu dute Marea Urdina elkartearen alde. Bertan, aniztasun funtzionala duten pertsonen inklusioa bultzatzen da. Azokan biltzen den dirua elkarteari laguntzeko erabiliko da.

*Los alumnos y alumnas de 6º de primaria de la Ikastola, han organizado un proyecto solidario a favor de la asociación Marea Urdiña. En dicho proyecto, se impulsa la inclusión de las personas con diversidad funcional.*
*El dinero reunido en la feria, se destinará a ayudar a la asociación*

- Euskaraz *Euskera*
- Publiko guztia *Todo los públicos*

(Irurako Ikastolako LH6koak antolatuta *Organizado por alumnas y alumnos de 6º de P de la Ikastola de Irura*)

## GIPUZKOAKO XARE TXAPELKETA, INFANTIL ETA ALEBIN MAILAK *CAMPEONATO DE GIPUZKOA DE XARE CATEGORIA INFANTIL Y ALEVIN*

Martxoko larunbatetan ligaxka eta finalerdiak
**Finala: Apirilaren 1ean**
*Ligilla y semifinales los sábados de marzo.* ***Final: 1 de Abril.***
(Ametsa pelota elkarteak antolatuta *Organizado por la Asociacion de Pelota Ametsa*)

## 2024KO EGUTEGIRAKO ARGAZKI-LEHIAKETA
## *CONCURSO DE FOTOGRAFÍA PARA EL CALENDARIO DE 2024*

2024ko egutegia osatzeko argazki-lehiaketarako gaia ´IRURA, FESTA ETA KULTURA´ izango da. Urtero bezala, adin guztietako herritarrek parte hartu ahal izango dute lehiaketan. Aukeratutako argazki-egileek 30€ko erosketa-bonoa irabaziko dute. Lehiaketaren oinarriak www.irura.eus webgunean aurkituko dituzue. Animatu!
*El calendario de 2024 se completará con el concurso fotográfico IRURA, FIESTA Y CULTURA. Como todos los años, podrán participar en el concurso vecinos de todas las edades. Los autores de las fotos seleccionadas ganarán un bono de compra de 30 €. Encontraréis las bases del concurso en la web www.irura.eus. ¡Anímate!*

***Emakumearen Nazioarteko Eguna, emakumeen eskubideen aldeko borroka ezberdinak gogoratzeko zein eskubide horiek betetzea eskatzeko erabiltzen da.***
*Lehengo urtean banatu ziren bandera moreak etxeko balkoian ipintzera anima zaitezte.*
*Bandera falta duenak kultura bulegoan izango du eskuragarri.*
***El Día Internacional de la Mujer se utiliza tanto para recordar las diferentes luchas por los derechos de las mujeres como para exigir su cumplimiento.***
*Anímate a colocar las banderas moradas que se repartieron el año pasado en el balcón de casa.*

**NOTA**
Toda la información en castellano en **www.irura.eus** o en la **oficina de cultura**

euskara

Irurako udala

kultur mahaia

castellano